

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Lehendakariak Zaragozako Nafarroaren Etxeko ordezkariak hartu ditu

Elkartek argitaratutako liburuaren ale bat eman diote haren sorreraren 50. urteurrena dela eta

Viernes, 07 de diciembre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Zaragozako Nafarroaren Etxeko ordezkariak hartu ditu aste honetan bere bulego ofizialean. Ordezkar horiek [elkartearen sorreraren 50. urteurrena ospatzeko](#) argitaratu duten [liburuaren](#) ale bat eman diote.

Arturo Navallas-en liburukia elkarteak bere 50 urteetan antolatutako jarduera aipagarrienen laburpena da, eta haren ibilbidean izandako gertakarien eta berariaz parte hartu duten pertsonen erakusketa grafikoa.

Gaikako 95 epigrafe eta guztira 272 ilustrazio dituen liburuak 112 orrialde ditu eta bost kapitulutan egituratzen da. Lehenengoak atariko orrialde batzuk eskaintzen dizkio Euskal Herriko koloniarri, hogeiko hamarkadan sortu zena Nafarroan eta euskal probintzietan (1923-1926) jaiotako pertsonen lehen elkartegintzako mugimendu gisa.

Muin garrantzitsuena hiru kapitulutan planteatuta dago, hogarreko hiru egoitza historikoekin bat datozenak: Sas-ko plazakoa (1962-1972), Gran Via (1973-1997) eta Santiago kalea (1999tik gaur arte). Azkenik, "Las Personas" ("Pertsonak") titulupean, Etxeko batzordekoak izan diren bazkideak izendatzen dira.

Nafarroako Jauregian eskainitako harreran izan dira: Nafarroaren Etxeko egungo lehendakari Rosa Mary Ibáñez eta liburuaren egile Arturo Navallas, bai eta Mariano Romeo, Alfredo Bergua y Concha Portero egoitzako ordezkariak ere.



Barcina Lehendakaria, Romeo, Bergua, Navallas, Ibáñez eta Portero-rekin.